

EUSKERAZAINZA

Idaztarau batzuk

**Euskera idatzia
bateratzearen bila**

EUSKERAZAINTZA

IDAZTARAU BATZUK

**Euskera idatzia
baferatzearen bila**

AURKIBIDEA

	<u>orrialdea</u>
AURKEZPENA	5
I'go: Idazte-ikurrak	9
II'gn: Izkien zerrenda ta zenbaiten idazkera	19
III'gn: Zenbait itzen aukera ta beren idazkera	25
IV'gn: Izen-jokabidea	37

AURKEZPENA

Idaztarauak. Idazteko arau batzuk diralarik ere, ez dira agindu zorrotz, ez dira inor beartzekoak. Ez dira, beraz, inori loturaz, zifegitez, isekaz, erreboluzioz eta beste inolako "bortxaz" ezartzeko asmoz eratu ditugun arauak. Aukera bat eskeintzea da baizik, arau auen egitekoa.

Ez dira guztiak. Beste zeatasun asko ta asko dira euskal-idazleari, idazteko unean, zalantzaroko gertatzen zaizkionak. "Alakoa ta bestea ta bestea, nola idatziko ditut?", galdetuz gabiltza oraindik. Zenbait xeetasun, berriz, eztabaidan eta auzipean ditugu. Argitu bearrekoak, noski, baiña ikerketaz eta arrazoien argira.

Bitartean. Guztiak —naiz geienak— argitu bitartean zer egin? Eztabaidak dirala-bide, nora-ezean gabiltzan aldi ontan, arau batzuk eskeintzen ditugu. Ez guztiak, esan dugunez; zailenak ere ez agian. Batzuk, une auetan lagungarri izan ditzan euskal-idazleak. Bear ba'da, errazenak, baiña une oroz bear ditugunak.

Nora-ezean. Nora-ezean gertatzen dala euskal-idazlea? Bai orixe! Zenbait zeatasun, jakiñeko era batera idazten zituan idazleak orain urte batzuk arte; arau berriak atera zituzten, idaztekerak aldatzera eragiñez eta beartuz. Orra, ordea, berriz ere leengo era idazten asi dirala zenbait idazle, beraien emandako arauak beren egitez apurtuta. Atzera-currera askoren lekuko gera, ama-bost urte auetako esanak eta idaztiak begi zorrotzez aztertu bear aundirik gabe

Aukera batzuk eskeintzen dizkiogu euskal-idazleari. Geurok aspaldian erabiltzen ditugunak dira, EUSKERAZAINTZA'ko geranok egunero darabizkigun idaztarauak, alegia. Atzo ala, gaur onela ta biar bestela idaztera, edo arauak aldatzera kulunkatzeko asmorik gabe geuretu ditugunak.

Argitasuna. Arauok onela artzekoan oiñarrizat izan dugun irizietako bat, benetan oiñarri-irizpide izan duguna, argitasuna da. Erraz, argi ta garbi gertatuko dana idazlearentzat; ulerterrez, argi ta garbi gertatuko zaiona irakurleari. Geiago esan dezagun oraindik, egia aitortzeko: idazleari zailtasun apur bat ematearen aldera jo izan dugula, irakurleari ulerkera arindu ta erraztutzearren. Eta argitasunaz batera doa, noski, erraztasuna ere.

Auziak ez dira gutxi, esaterako, oguzkera edo aoskopatez alde batera doanean, eta izkuntza-logika bestera. Zein lenengo? Argitasuna artzen dugu oiñarrizat onelakoetan, lenengo begiratuan erraztasunaren kaltean dala iruditu arren.

Geiengoa ez dugu ukiezin eta utsezintzat artzen, geiienen iritzia gero guztieri ezartzeko. Geiengoak egin duan aukera, begirune ta itzalez artzen dugu; eredutzat edo jarraibidetzat aurkeztu ere bai. Ez, ordea, beartuta ezarri.

Guztiok batera artzen saiatu gera gure arteko aukerak. Eta guztiok batera ta iritzi bereko izanik artu ditugun aukerak, oietzek bakarrik dauzkagu gure erabakitizat, eta oietzek ditugu geuretzat erabakiak.

Izkuntza-auziak ez dauzkagu indarrez eta borrokaz erabakitzeko gaitzat; geiengoa nagusi ta gutxiengoa oinperatzeko jokalekutzat ere ez. Politika-arazoak ez diranez, erabaki ere ez dira politika-arauz erabakitzekoak. Erabakiak, euskal-senaren eta izkuntza-arrazoien argitara artzekoak dira beti. Bestalde, geiengo ta gutxiengoan arteko borrokak, aserrea ta zatiketa ekarri oi ditu; guk, ordea, elkartasunari eman diogu garrantzia. Orregatik, elkartasunaren billa jo dugu beti, aalik gai ta ezpai geiengetan iritzi bereko izatera eldu arte saiatuz. Aukera bera guztiok aoz batez ontzat artzera eldu geranean, alaxe adierazi dugu.

Geienen iritzia ere argi ta garbi aditzera eman dugu, guztiok iritzi bereko izatera eldu ez geranean. Baiña gelengoaren iritzira besteak makurtu-erazterik ez dugu nai izan: begirunea zor zaio gutxiengoaren aukerari ere, eta zabalik utzi dugu bidea orrelakoe-tan. Gure artean orrela jokatu dugu ta besteentzat ere hide bera eskeintzen dugu. EUSKERAZAINTZA'ren jokabidea, beraz, ontan laburtu dezakegu: **askatasun edo aukeramenean elkartasuna.**

Eskeintza bat da, beraz, euskal-idazleen joka-lekurako. EUSKERAZAINTZA'k egin duan aukera bat, euskal-idazle ta ikasleei orain begien aurrean ipintzen dien eskeintza bat. Eta eskeintzak duan irekitasunean, gaiñera: nai duamak, ongi derizkion añaean artu ta currea egiteko askatasun zabalean.

Indar guztia ez du eskeintza onek iñolako nagusitasun, indarkeria, "bortxa" ta antzekoen bidez agertuko. Alderantziz baizik: aukera ta eskeintza auen indar guztia, **beren barne-egokitasunean datza;** zenbat-eta egokiago ta erikoiago diran, ainbat-eta erakarren-indar aundiago izango dute: ori garbi dago. Eta orren billa jo dugu. Ortantxe saiatu gera benetan.

Idaztarauok aukeratu ta eskeintzean, azterketa ta eztabaida luzeen ondorio izan dirala esan bearrik ez dago. Alde askotara begiratu ondoren, geure ta besteen alorrak ikusita, zenbait arrazoi-ren argitara artutako bidea da. Ez dugu atzera-pausorik eman nai izan berreun urtez leenagora, bitarte luze ontan beti currea egin dualako Euskerak. Berrituztearen izenean dana goikoz beeratzera ere ez dugu jo, jostaillu bat ez dalako Euskera. Aizo ta gaurkoan oiñarriturik, eta euskal-senean sakonduta, etorkizunerako egoki-gotu nai izan dugu.

Aditza ta beste zeaztasun asko: lanaren lanez eta egoki bate-ratzea girotzen doan añaean, landuko dugu gure aukera ta bere garaian egingo gure eskeintza berria. Bitartean bakoitza bere ar-loan jo ta ke lan egiten saiatzea da bearrezkoa.

EUSKERAZAINTZA'K

Eibar'en 1981'go irailaren 26'an.

I'go: Idazte-ikurrak

I'go: Kulatza:

Au da, "titta" edo "puntua", onelakoari esaten diogu: (.).
Bi kulatz, onela: (:), eta iru kulatz onela: (...).

2'gn: Kakotxa:

- a) Bee-kakotxa: (,) **Aita, ama, lagunak, ezagunak, e. a.**
- b) Kulatz-kakotzak: (;) **Atzo etorri giñan etxera; bitartean euri asko egin du; noiz joango geranik ez dakigu.**
- c) Goi-kakotxa: (') **Peli'ren aita Ernani'ra joan da.**
- d) Goi-kakotx bikoitza: (" ") **Onela dio esatera zaarrak: "Dagonean bon-bon, ez dagonean egon".**

OARRA: Ikur auek eta beste zenbait NOIZ erabili bear diranik, ez dugu adieraziko emen: ZEIN eta NOLAKOAK diran adieraztea soil-soillik egingo dugu. Idaz-lanen argitasun eta egokitasunerako NOIZ eta NOLA erabili, beste era bateko arau batzuen bidez argitzekoa litzake.

3'gn: Goi-kakotxa erabiltzeko era batzuk:

- a) Izen nagusi edo Izen berezietan: **Peru'k Mikel'ekin eram du aita Tolosa'tik Gernika'ra.**
- b) Zenbakiak jokatzekoan edo erabiltzekoan: Eta bereziki egunak eta orduak adieraztekoan: **Urtarrillaren 1'ean, 10'ean, 19'an, 20'an, 11'an, (batean, amarrean, emeretzian, ogeian, amaikan).** Eta orduak onela: **Goizeko 4'tan, gaueko 12'tan, edo 10'etan.**
- c) Zenbatgarrena adieraztekoan: **1'goa, 2'gna, 3'gna, 20'gn, 100'gn, 9'gn.**

- c) Zenbatgarrena adieraztekoan: **1'goa, 2'gna, 3'gna, 20'gn, 100'gn, 9'gn.**
- d) Urte ta eguna izendatzekoan: **1980'go urtarrillaren 26'an joan zan.**
1980'go urtarrillak 26 ditu gaur.
 Beste era bat, nazioartekoa: **1980.1.26; 1990.12.30.**

4'gn: Asperen-ikurra:

(1) Bakarra erabiliko dugu, eta bera, esakunaren atzean, onela: **Ail O! Gora gu ta gutarrak! (!!!).**

5'gn: Galde-ikurra:

(?) Zenbaitetan, aurre ta atze, bietan ipintzeak esaldia argitu lezakeala ukatu gabe, **ATZEAN** bakarrik erabiliko dugu. **Noiz etorriko aiz? Ontzat ematen al duk jokoera au?**

6.gn: Elkar-ikurra, "marratxo", "zubittoa" deitua:

- (-) Bi itz, diranak dirala, elkarri lotzekoan erabiliko dugu; elkarri lotu bai, baiña biak itz bat egitera iritxi gabe diranean.
- a) Bi itz, bakoitza bere esanicia duana, beste zerbait adierazteko elkartzen ditugunean. Adibidez: **Esku-lan, etxe-abere, abere-etxe, zaar-berritu, eize-txakur, bei-esne, esne-bei, kale-etxe...**
- b) Itz bera, esanicia indartzeko, bapikatzen dugunean: **luze-luzea, zuri-zuria, goi-goikoa, zure-zurea, ber-bera, bere-bera, bee-beekoa.**
- c) Atzizkiren baten ordez: **Lan-tresna** (Lan-e-KO tresna, lan-e-RAKO tresna) **Mendi-bidea** (mendi-KO bidea, mendi-RAKO bidea), **Lan-saria** (lan-e-KO saria, lan-AREN saria) **Buru-lana** (Buru-ko lana, Buru-ZKO lana), **Esku-lana, Mendi-gizona, Itsu-mutilla, Erri-gizona...**
- d) Bi itzen artean TA edo ETA idazteko ordez ere (-) **marratxo** erabiliko dugu. Adibidez: **Aita-amak** (aita TA ama),

Neba-arrebak (Nebak eta arrebak), **Zeru-lurretan** (zeruetan eta lurretan), **Senar-emazteak**, **osaba-illobak**, **aiton-amonak**, **neska-mutillak**, **zaar-gazteak**, **esku-oiñak...**

- e) Aditzari atzizki antzera lotzen zaion -TA ori, marratxoaren bidez lotuta erabiliko dugu. Aldiz, azalpen-emaille da, eta aldiz zergatizko esanacia duana dugu. Ona emen adibide batzuk:

"Ez du erantzun, ez daki-TA". "Ez dizu eman dirurik, ez dauka-TA". "Berandu etorri da, trenak iges egin dio-TA". "Trenak iges egin dio, berandu etorri da-TA". "Artzazute ta jan, au nere Gorputza da-TA".

OARRA: Adibideotan ere ageri denez, geien-geienetan, aditz JOKATUARI lotzen diogu -TA ori, atzizki antzera lotu ere.

- f) Beste TA bat, aditzari atzizki antzera lotzen dioguna, baiña marratxorik gabe idatziko duguna: Emen aipatzen dugun -TA ori, beste atzizki baten ordeztu edo esanai berean erabiliko dugu. Ona adibide batzuk: **NekatuRIK = nekatuTA dago mutilla lanaren lanez.**

Goseturik = **Gosetuta nago ibillaldiaren ondoren.**

Beti etxean sartuRIK = **sartuTA dago gizon ori.**

Eta era berean beste esaldi arietan ere: **nekatuTAKO, sartuTAKO, oztuTAKO...**

"NekatuTAKO mutillak, jolas-gurarik ez". "GosetuTAKO gazteak, lanik ezin".

"Besteak asmatuTAKO ipuiñak, gatzik ez du".

OARRA: Adibideotan ageri denez, geien-geienetan, aditz JOKATU BAKOARI edo JOKATU GABEARI lotuta izaten da. Eta alaxe erabiliko dugu.

N'ren ondoren danean, DA, biurtzen da onela: **eginDA, esanDA, EroanDA, izanDA, joanDA**, eta berdín onela: **eginDAKO, EroanDAKO, izanDAKO...** Atzo **eginDAKO** lana, oso ona duzu; gaur **eroanDAKO** liburua ez da ona. Zuk **esanDAKO** ipuiña, ez da zatarra...

7'gn: Baiezkoa idazteko era:

Bai ala ez galdeari, aditza labur-eran jokatzeko dugunean, BA bai ipintzen diogu aurrean, baiezkoko erantzuna emateko: BANator, BAdakigu, e.a. Orrelakoetan, marratxorik gabe elkartuko dugu. Bai al dakizu ikaskaia? - **Bai, BAdakit... Bai, BANekian.**

Bai al dator aita? - **Bai, BAdator... Bai, BAdabil. Bai, BAdago...** Bai al duzu dirurik? - **Bai, badut naiko dirua. Bai, BAdarukat etxean.** Esaera zagar batekoa: "**Bazuanak, badu**".

8'gn: Baldintza idazteko era:

Baldintzazko esaldiak zer-nola diran emen esaten asi gabe ta arazoa azaldu barik, baldintzazkoa danean nola idatziko dugun: ori da emen esaten duguna.

Baldintzazkoetan, beraz, aditz laguntzaileari ta labur-erako editzari aurrean ipintzen diegun BA ori, goi-kakotzez erabiliko dugu. Ona emen adibideak:

Joaten ba'da, ikusiko duzu. Joaten ba'zera, ikusiko zaitu. Ikusiko gaitu, etortzen ba'da. Ikusten ba'gaitu, ongi dauka begia. Asko poztuko da, saritzen ba'duzu. Biar arte, Jainkoak nai ba'du. Ikasiko luke, nai ba'lu...

OARRA: Zalantzarik izango ba'lu inork, noiz baldintzazko ta noiz baiezkoko diran ezagutzekoan, ona emen bereizteko bide egokia: **BALDIN** itza sar ba'ledi esaldian, orduan baldintzazkoa litzake; bestela, baiezkoa. Izan ere batean sar genezake ta bestean ez, onela:

*Bai al duzu ogirik? -Bai, badut ogia. Baiña ez genezake inola ere esan «bai, **BALDIN** badut ogia». Or garbi dago badut ogia dala, **BALDIN** gabe.*

*—Asko ikasten ba'dugu, jakingo dugu. Asko ikasten **BALDIN** ba'dugu, jakingo dugu... Asko ba'dakigu, serbitzu ohea egin dezaiokegu erriari...*

*—Agintzen ba'du, egingo du... Egiten ba'du, ongi egingo du... Adibide auetan guztietan sar genezake **BALDIN**, baldintzazko dira-ta.*

9'gn: BAI + DA idazteko era:

Azalpen-emaille ta geienetan zergatia ere adierazten duan BAI- edo BAIT- ori, era askotara idatzi izan dute idazleek: Batzuek BAIT- erabilliz, besteek BAI- baiña T gabe, urrengoek era batera lotuta, besteek lotu barik... Ona emen jarrairan, SEI era ez-berdin, guztien artetik egokiena aukeratzeko:

Pozik ere pozik nago, gure aita onik...

- 1) etorri **BAIT DA... BAIT zan.** Bait naiz, bait gera, bait litzake...
- 2) etorri **BAITA BAITZAN.** Baitnaiz, baitkera, baitziran...
- 3) etorri **BAIT-DA ... BAIT-ZAN.** Bait-naiz, bait-gera, bait-litzake...
- 4) etorri **BAI DA ... BAI ZAN.** Bai naiz, bai gera, bai giñake...
- 5) etorri **BAIDA BAIZAN.** Bainnaiz, baikera, baigiñan...
- 6) etorri **BAI-DA... BAI-ZAN.** Bai-naiz, bai-gera, bai-zitezkean...

Asko ta asko eztabaidatu ondoren, geienen iritzia, BAI-DA, BAI-ZAN, BAI-GIÑAN, BAI-LITZAKE... e.a. T gabe ta marrazkoa bitarteko dala idaztearen aldekoa izan da. Zenbait tokitan esan ere onelaxe esaten dute euskaldunek, eta bestetik, begietarako argien eta garbien ere orrela gertatzen dala uste dute gure arteko geienek: BAI ori berezia dala nabari gelditzen da marraz loturik, eta aditza ere bere osoan eta garbi. Ortan da, beraz, geienen iritzia edo aukera, ala ere ez elkar eta ez besterik ortara beartzeko asmorik gabe.

Ona emen adibide batzuk, nai aiña luzatu ta ugaritu ditzakegunak:

"Berandu etorri BAI-da, BAI-AIZ, BAI-naiz, Bai-gera, Bai-zera, BAI-dira, gero lanak ezin ongi egin.

Asko daki, ikasi ere asko ikasi BAI-du BAI-zuan...

Euskeraz mintzatuko gera, euskaldun BAI-gera biok.

Beste aiek erdal-burua dute, ez BAI-dira euskaldun...

Arrotzek menperatu ginduzten, ez BAI-giñan elkartu euskaldunok.

Ez du lapurretarik egin, ez BAI-litzake sekulan lapur-
tu bear.

Sari ona eman dizute, lanean ere asko saiatu BAI-
zifian.

Eta adibide auen ondoren, ontan laburturik ematen dugu gu-
re jarrera:

GEIENEN iritzira, 6'gna dugu **OBETSI**,
baña beste **BOSTAK** aukeran **UTZI**.

10'gn: **EZ + DA**, **EZ + aditza**, idazteko era:

Geienik bi erataria idatzi izan dugu euskaldunok, **EZ** eta
aditza, biak elkarren ondoan doazenekoa:

- a) Berezita: **Ez naiz, ez aiz, ez da, ez gera, ez zan, ez ze-
rate, ez litzake...**
- b) Erantsita: **Enaiz, ezaiz, ezta, ezkera, etzera, etzerate,
etzira...**

Egia esan, euskera idatzian asko-asko erabilli izan dute
idazleek elkartutako era ori; batez ere, bi Z diranean:

eZ + Zera,
eTZera

EZ + Ziñaten...
eTZiñaten

Gure erabidea ontan oinarritzen dugu: Batetik, **EZ** ori be-
ti **EZ** dala, bere nortasuna duala, beti esanai berdiña duala:
bete-betea ukatzekoa. Alderantziz da **BAI**'ren arazoa, ba-
ztutan **BA** izaten da, besteetan **BAI** baña zergatizko esanaiz
jantzia e.a.

Bestetik, aditza osorik eta ezer aldatu gabe erabiltzea,
beti ere argiago ta ulergarriago da edonorentzat; erraztasun
arundia gertatzen da, gainera euskaldun-berrientzat.

Jendaurrean eta ozenki esateko naiz irakurtzeko, uler-
garriago gertatzen da **EZ** eta aditza, berezirik esatea. Ori guz-
tiagatik, bada, onela erabiliko dugu:

Ez nago, Ez naiz, Ez aiz, Ez ago, Ez da, Ez daki, Ez
giñan, Ez ziran, Ez zekiten, Ez ziralako, Ez lira-
ke, Ez giñake, Ez zan...

11'gn: BAI + ETA nola idatzi:

Gaztelerazko "también" esateko, bi era ditugu euskaldu-
nok, biak onak eta biak aberasgarri:

- a) Aita ta ama gaur etorri dira. Eta semea ere ere bai, gaur
etorriko da.
- b) Aita- amak biar joango dira etxera. BAI + TA semea ere
biar joango.

Iru era, aukera egiteko:

—Aita-amak etorri dira, BAI ETA semea ere, BAI ETA la-
gunak ere...

—Aita-amak etorri dira, BAI-TA semea ere, BAI-TA la-
gunak ere.

—Aita-amak etorri dira, BAITA semea ere, BAITA lagu-
nak ere.

Gure artean BAITA artu dugu, Azkue berak ere Iztegian e.a.
ontzat emanik daukanez. Orrelaxe itz bat egiñik daukagu
erabilekeraz beintzat.

—Gurasoak euskaldun ba'dira, BAITA seme-alabak ere.

—Araba-Bizkai-Guipuzkoa'k Euskalerra ba'dira, BAITA Na-
parroa ere.

—Iparrekoak ez dira gutxiago, beraz BAITA iparrekoak
ere Euskalerra dira...

12'gn: EZ + ETA nola idatzi:

Gaztelerazko "tampoco" esateko ere bi era ditugu eus-
keraz, BAI + ETA adieraztekoan ikusi dugunaren antzera:

- a) **Aita ta ama ez dira etorri. Eta semea ere ez.**
 b) **Aita ta ama ez dira etorri. EZ + TA semea ere.**

Biak erabilgarri dira, biak asko erabiltzen ditugunak ere bai. Idatzi, ordea, goikoaren antzera, iru eratara idatzi oi ditugu:

—Gurasoak ez dira etorri, **EZ ETA** semea ere, **EZ ETA** lagunak ere.

—Gurasoak ez dira etorri, **EZ-TA** semea ere, **EZ-TA** lagilleak ere.

Gurasoak ez dira etorri, EZTA semea ere, **EZTA** alabak ere.

Goikoan, 11'gnean, bezala, eta arrazio beretan oiñarri turik, **EZTA** ontzat artu dugu, ondorengo adibideen araueran:

—Gurasoek ez dakite euskeraz, **EZTA** seme-alabek ere.

—Euskalerrriak bere burua ez du ukatu, **EZTA** ukatuko ere.

—Euskalerrriak ez ditu bere eskubideak utzi, **EZTA** utziko ere.

13'gn: **GABE, BAGE, BARIK:**

Iru eraok oparo erabiltzen ditugu euskaldunok.

- a) Aditzaren ondoren:

Ez gelditu etxea ikusi GABE... Zu agurtu gabe...

Ez gelditu etxea ikusi BAGE... Zu agurtu BAGE

Ez gelditu etxea ikusi BARIK... Zu agurtu BARIK

- b) Izenaren ondoren:

Lotsarik GABE mintzatzen da mutil ori.

Lotsarik BAGE mintzatzen da mutil ori.

Lotsa BARIK mintzatzen da mutil ori.

Ageri denez, era oietan guztietan, beti bereiz edo erantsi **GABE** idatziko ditugu.

- c) Zenbaitetan, ordea, atzizki ba'kira bezala erabiltzen ditugu GABE ta BAGE; eta orduan, jakiña beti lotuta: **LotsaGABE, LotsaBAKO, Errugabe, Errubako, BuruGABE...**
- d) Gauza bera adieraztekoan oso aberasgarri da beste era ontara erabiltzea: aditza izen bihurtuz eta ari lotuta KE bat.
IkusteKE, etortzeKE, eramateKe, ikasteKe, joateKe, jakiteke, ibiltzeKe...

14'gn: EDO ta -EDO:

Bi erataria erabilli oi dugu EDO, esanaira aldatuta.

- a) Berdintasuna adierazteko; eta orduan bereiz idatziko dugu. Onela:
gizen EDO lodi, gaillur EDO tontor, legor EDO idor, mee EDO melar...
- b) Esatera berezi batzuetan, esan nai dugun guztia esan gabe adierazten dugunean ere, EDO erabiltzen dugu izketan. Nola idatzi, ordea?

"Aitak edo... egingo zuan" = Aitak edo (beste norbaitek) egingo zuan. "Ez dakit, baiña, jo edo... egingo zuan. Mikel'ek edo... eramango du.

Ageri denez, zerbaiten utsunea nabari da: "edo beste norbait" edo antzeko zerbait. Ori adierazteko bide bat, iru kulatz ipintzea litzake. Ala ere, oitura berria ez sartzekotan, beste era au aukeratu dugu:

"Aitak-edo egingo zuan noski". "Ez dakit, baiña, jo-edo egingo zuan".

15'gn: —ETA, —TA:

Goikoaren antzeratsu, -EDO orren erara erabilli oi dugu.

"Zuen Jon'ek-eta egin dute". "Gure umeek-eta egin dute ziur aski".

"Koldo-ta oso pozik etorri dira". "Irakurri-ta egin ditugu ikastolan".

Garbi ageri denez, esaldi aietan ere zerbait esan gabe gelditzen da "eta abar" edo onelako zerbait uzten dugu esan gabe. Ori ere, bada, orrelaxe marratxoz loturik erabiliko dugu.

16'gn: BIDE, -BIDE:

"Bide" itzak esanai asko ditu euskeraz. Ona emen bi:

a) Atzizki ba'litz bezala erabiltzekoan ere, bi eratara idatziko dugu:

LOTUTA: itz txit ezagun eta erabillicak ditugunean: **ogibide, lambide jokabide, adibide, jarraibide, burubide, eskabide...**

BEREIZ, eta marratxoz loturik, beste gaiñerakoetan: **mendi-bide, erri-bide, beor-bide, gorputz-bide... Bena-tan bide-bidea danean.**

b) "Ziur aski", "agian", "noski" adierazi nai dugunean, bereziki Iparraldekoek erabillia: **"Jakin bide duzu nor dan". "Esan bide zenidan, baiña neri aaztu.**

17'gn: AL, AAL, OMEN=EI, OTE=ETE:

Lotu barik edo bereiz erabiliko ditugu.

—AL: Joan **AL** zera aitaren lantokira?

—AAL: **AAL** duamak **AAL** duama egiten du.

—OMEN: Joan **OMEN** da gizona. Joan **EI** da gizona.

—OTE: Bai **OTE** daki zer egin? Bai **ETE** daki zer egin?

II'gn: Izkien zerrenda ta zenbaiten idazkera

SARRERA

Izkiak, bi eratakoak ditugu: batzuk, euskeraz idazteko erabiltzen ditugunak; besteak, guk euskeraz idazteko erabili oi ez ditugunak, baiña badiranak. Guztiak ipiñiko ditugu guk zerrendan, baita erabiltzen ez ditugunak ere. Zergatik? Izki guztien zerrenda, bata bestearen ondoren, izkuntza guztietakoa da; batez ere, erromatarren izkiak erabiltzen dituzten izkuntzetakoa. Bestalde, erderaz inguraturik bizi geranez, urrenez-urren jarritako izki guztien zerrenda oso-osorik, jakiñean euki bear dugu gauza askotarako.

Beste oar bat ere gogoan artzekoa da: Izki bikoitzak ere badirala. Baiña izki bikoitz oiek, egia esan, beren ots bereziaren agerpen edo adierazgarri dira. Beraz, beren tokia bear dute. Baiña ez ditugu izki soil edo banakakoen zerrendan ipiñiko, berezita bazi-zik.

I'go: Izkien zerrenda osoa:

a, b, c, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, o, p, q, r, s, t, u,
v, w, x, y, z.

- a) Gazteleraz e.a. erabiltzen dituzten izki auek: c, q, v, ta w, ez ditugu erabiltzen, euskeraz ari geranean. Geienaz ere, erdal-itzen batzuk euskerazkoen artean darabizkigunean.
- b) Gazteleraz erabiltzen duten CH izki bikoitza ere ez dugu erabiliko.
- c) Izki bikoitz auek danak erabiliko ditugu euskeraz. dd, ll, rr, tt, ts, tx, tz, bikote bakoitza ots berezia adierazteko.

- d) Besteak gerorako utziz, DD adieraziko dugu emen.
DD edo dd izki bikoitz orren otsa, gaztelerazko "y" izkiarena adierazteko erabiliko dugu, adibidez, onddo, au da "onyo" bezalatsu alegia.

2'gn: F ta P izkiak:

Oitura aundia dugu euskaldunok F'tik P'ra aldatzeko. Baiña ez da erraza noiz zer erabakitzea, itzak banaka arturik, bakoitzean egitekoa da aukera. Bitartean eta oraingoz, auxe esan bear: Tokian kotiko oituraren ariora erabiliko ditugula bata naiz bestea. Adibidez:

IFar (AN, B, G) erabiltzen dute.

IPar (AN, B, BN, G, R) erabiltzen dute.

AFari (B, BN, G, L) -APari (B, G).

AlFer (AN, B, G, L) -AlPer (AN, B, G, L).

3'gn: R ta RR noiz-nola erabili:

- a) Itzen barnean eta biguna danean, jakiñeko era: **uRa, oRi, eRe, aRi, oRo...**
- b) Itzen barnean eta gogorra danean, baiña kontsonante aurrean, beti R bakarra naikoa da. Adibidez: **aRte, uRte, eRdi, oRtzi, iRten, zorRtzi...**
- c) Itzen barneko ots gogorra ta bokalen ondoren, onela idatziko dugu: bi RR erabiliz, alegia: **aRRa, eRRE, oRRI, eRRI, iRRipar, uRRe, uRRats...**

Berez, R gangarduna, onela í, atsegiñago litzaiguke; ona bi arrazoi:

— Izki bera bapikatzea baiño, bat bera indartzea edo gogortzea, egokiago da. Orixe zan Arana Goiri'ren arrazoia, í onela idazteko.

— Arrazoizkoa ez-ezik, baita laburrago ere, izki bat gutxitzen dalako. Ala ta guttiz ere, Irarkoletako zailtasunak dirala-bide, ta euskaldun geienak erderazko

idazkerara oituago daudenez, zailtasunik ez erasterren ez Irarkolari ta ez irakurleei, bi RR erabilliko ditugu.

- d) Itzen bukaera edo amaiera, noiz gogor eta noiz bigun, nola adierazi idaztekoan?

— Berez, argigarri litzake ta zalantzak kentzeko bide, itzen amaierako R gogorra danean, baten ordez, BI RR idaztea: **okeRR, edeRR, gogoRR...**

Ala ere, R bigunez bukatzen diran itzak oso gutxi dira ta ezaguterrezak ditugu. Orregatik, oitura dala-bide, ez da zailla, amaiera biguneko itzak ezagutzea. Beraz, R bakarra idatziko dugu beti.

Ona emen, bukaera biguneko itz batzuk: **uR - uRa, zuR - zuRa, noR - noRi, noR - noRen, zeR - zeRen, papeR - pepeRa, plateR - plateRa, alogeR - alogeRa...**

- e) Ontzat ematen eta txalogarritzat artzen dugu, esate baterako, oroigarri ta ageri berezietan e.a. bestela baiño apaiñago izateko eran, í bakar gangarduna idaztea, orrelakoetan oitura alaxe dalako.

4'gn: B ta P izkien aurrean:

Beti N idatziko dugu: **aiNbat, zenBat, enBor... zaNpatu, zaNpatu, aNpolai, eNparantzta, oiNperatu, eNparau...**

5'gn: T izkiaren bustidura:

Bustidura adierazteko, berez, obe litzake, izkiari gainean kakotxa edo gangarra ipintzea, baiña irarkolako eziñez, onela: **TTiki, paTTAr, TTaTTar, TToTToa, TTaka-TTaka...** T ori bapikatuz, alegia.

6'gn: Ñ ta LL nola erabili:

Euskeraz aozkatzen ditugunez gero, euskal-ots dira; nola idatzi?

- a) Esaten edo aozkatzen ditugun Ñ ta LL otsak beti idatziko ditugu, itzen barnean: **bañā, eziñā, iLLa, borobilla...**
- b) Iparraldeko euskaldunek askotan —IN eta —IL erabiltzen dituztenez, erdi-bidetzat, Ñ ta LL izkien aurrean beti idatziko dugu I izkia: **bañā, bañō, oillo, zaillla, etxerañō, andereñō...**
- c) Ñ ta LL izkien aurrean EZ DUGU I izkia idatziko, bi era aietan:
— Itzen asierako Ñ ta LL izkien aurrean, ez. Onela: **ñaiñō, ñimiñō...**
— Itzen barnean, kontsonanteen ondoren ere ez: **izarñō, aurñō, agurñō.**
- d) Itzen bukaera edo amaieran, berriz, beti —IN eta —IL idatziko ditugu. **EgIN, ezIN, IL, zaIL, ibIL, atsegIN, eragin, oraIN...**
- e) Giza-izen, abizen, toki-izen diramean, aldaketarik gabe, beren-berenean idatziko ditugu, I izkia, Ñ ta LL izkien aurrean sartu gabe: **Oñati, Larrañaga, Zalla, Gaztañaga, Iruñā,**

7'gn: J izkia:

Oguzkera gogorrerako, au da, gaztelerazko Ge, Gi, Ja, Jo, Ju, adierazteko, beti J izkia idatziko dugu. Adibidez:

Jan, Jeiki, ijito, Joan, Jolas, Jabe, Jarri, AJea, Jipoiā, e.a.

OARRA: Orrela idatzi arren, bizkaieraz beren erako otsa edo oguzkera emango diote, baita Ipar-aldean ere: Jan = Yan, Jaun = Yaun...

Bestetik, jatorriz edo jatorrizko izkuntzan G duten zenbait itzetan, baiña oso-oso sarturik dauzkagunez, onela erabiliko ditugu:

Jendea, BirJiña, EbanJelioa, aldi berean V ren ordeztu beti B erabiltzen dugun antzera.

8'gn: G ala J, ots gogorreko erdal-itzetan?

Jatorriz, au da, itzaren jatorrizko izkuntzan GE ta GI diranak, eta otsez ere bigun diranak, onela idazten dituzte jatorri-izkuntzan, jakintza-izenak bereziki: **LoGica, FiloloGia, GeoloGia, TeoloGia, Geografia, Geometria, e.a.**

Orain artekoan, geien-geienik J izkiaz idatzi izan ditugu, ots gogor edo gaztelerazko J'ren doiñuz esaten ditugulako, gazteleraren eragiñez-edo. Aurrerakoan, OBE dugu G izkiaz idaztea ta ots BIGUNA ematea: **loGika, TeoloGia, Geologia, e.a.** Beraz, OBE, al dan neurrian.

9'gn: Y izkia:

Izketan asko erabili izan dugu Euskalerrri osoan. Idatzi ala ez idatzi, ona emen arau batzuk:

- Itzak berea ez duanean, eta esate-oituraz sortua danean, "fonetismo" edo dalakoa danean, ez dugu erabiliko idaztekoan. Adibideak: **egla, ogla, mendla, leloa, begla, zurra, blotza...** eta **Ez egiya, ogiya...**
- Itzak bere-berea duanean, orduan bai. Ez dira adibide asko: **YaYoa**, benetan trebea dala esateko.
- Giza-izen, Abizen, toki-izenetan, aldatu barik eta bakoitza bere-berean: **Yurramendi, Yurre, Yurreta.**

10'gn: X izkia:

Ots goxoa adierazteko erabiltzen dugun izkia da.

- Batez ere gauzen txikitasuna adieraztekoan erabiltzen dugu: **Sagu-Xagu, Zimur-Ximur, Xume, Gizon-Gixon, Gozo-GoXo...**
- Adierazleen (au, ori, ura, emen, or, an) eta aditz-lagun batzuen bidez gertutzea edo urbiltzea ta indartzea adierazteko erabiltzen dugu: **Au-auXe, ori-oriXe, ura-uraXe, geroago-geroXeago, luzeago-luzeXeago...**

- c) Baiña R, N ta L izkien ondoren, TX biurtzen da.
**or-orTXE, emen-emenTXE, an-anTXE, gogor-gogorTXO, bi-
gun-bigunTXo, makal-makalTXO...**

11'gn: Gaztelerazko X izkiaren otsa adierazteko era:

Adibidez, "éxito", "sexo", euskeraz idazten ari geranean, ezin idatz ditzakegu onela: seXo, eXito. Izan ere, orrela idatzita beste ots bat, euskal-ots goxoa dutelako.

Beraz, beste era ontara idatziko ditugu: **eKSito, seKSo.**

Oartu, ordea, ez dirala euskal-itzak, erderetatik artuak baiño.

12'gn: H izkia:

Euskaldunik geien-geienok ESATEN edo AOZKATZEN ez dugunez, idatzi ere ez dugu idatziko, baldintza biotan izan ezik:

- a) Idaztekotan ere, Ipar-Euskalerriko itz berezietan, aozkatzen dutenean.
- b) Idaztekotan ere, erdal-izenetan, abizen, toki-izen e. a.

13'gn: TS, TZ, TX izki bikoitzak:

Noiz erabili edo noiz idatzi bear dugun oietako bakoitza jakiteko, egia esan, ez dugu arau jakin eta zeatzik. Geienez ere, arau lagungarri batzuk aurki genitzake.

Biderik ziurrena, bakoitzean ikusi ta ikasi bearreko arazoa dugu, beraz.

III'gn Zenbait itzen aukera ta beren idazkera

I'go: AL eta AAL:

Jatorriz biak berdin ba'lira ere, gaur oso bestelako dira:

- a) AL: Galdera-itz dugu, BAI ala EZ, erantzuna jakin nai dugunean beti erabiltzekoa. Ona emen adibideak:
Nai AL duzu ogia?
Bai AL dakizu ikaskaia? Ez Al duzu gure etxera etorri nai?
- b) AAL: Indar, kemen edo gaitasun... orrelako zerbait adieraztekoan erabiltzen dugu. Adibideak: **AAL ducnak**
AAL duca egiten du.
Era berean: **AALmen, AALtasun, AALguztidun, AAlegiñak egiñAAL...**

2'gn: AO ta AGO:

Izketan, era askotara esan oi dugu: ao, au, abo, ago, aba, auba... Jatorriz, AO izango zala dirudi. Bide au artu dugu oraingoz:

- a) Gipuzkeraz, naparreraz eta "baturatzea" lortzeko bidean, AO idatziko dugu, era ontan: **Ao, Aoa, aotik, aoko, aora, aocaren, aorik...**
- b) Bizkaiteraz oso zail da AGO utzirik, AO erabiltzea. Orreगतिक, oraingoz, AGO ere erabiltzea zillegi izango da.

3'gn: ZAR -ZAAR:

Jatorriz, bi AA ez ba'lira ere, A luzatua beintzat esaten dugu euskaldunik geienok. Bateratze-bidean, zAAR idatziko dugu. **Gizon zAAR bat, zAARkitua... zAARren... zAARTzaro...**

OARRA: zAAr, bai, baiña sekula ere ez beste bi auetakorik:

- a) txAAr, eta olakorik ez. Beti onela baizik: TXAR, giza-TXAR, txarto, txarki.
- b) tzAAr ere ez, orrela ez dalako: astoTZAR, liburuTZAR, otsoTZAR...

4'gn: LEEN - LENEN:

Jatorriz, agian, biak jatorri bereko dira. Gaur, ordea, esanai ez-berdiña adierazteko, berezi egiten ditugu:

- a) LEEN: Aspaldikoa adierazteko, iragan edo igarotakoa adierazteko:
"gaur onela, baiña LEEN... baiña LEENAGO bestela ziran gauzak..."
"Leen oiñez ibiltzen giñan, orain berebillez.
- b) LENEN: Bigarrenaren aurrekoa adierazteko. Adibideak:
"Zu zera LENENGOA, bestea bigarrena... Egizu au lenengo, urrena ura."
"Gaur zu zaude LENENGO, biar Mikel izango da LENENGO..."

5'gn: GUZI - GUZTI:

Bietara erabili izan dugu euskaldunok bai izketan eta bai idaztekoan. Bateratzearen billa goazenez, bat aukeratu dugu, bietatik osoena uste izan duguna: GUZTI. Izan ere, T ori nola sartuko zioten gure aurrekoek, leendik izan ez ba'lu? Ulergarriago dirudi, erabillican, zenbait aldiz T ori galduta gertatzea. "Etxe guZTietan... GuzTI - guzTia..."

6'gn: ORAI - ORAIN:

Zenbait itzetan galdu egin izan da amaierako —N ori. Batez ere iparraldekoek, —N ori galduta, ORAI esaten eta idazten dute. Osoago denez, beti **ORAIN**, oraiNgo, oraiNtxe, oraiNdanik... erabiliko dugu.

OARRA: Beste itz askotan ere galdu izan dugu -N ori, eta geienik gipuzkeraz mintzo geranok. Jatorrago danez, aal dan guztian osorik idatziko dugu. Ona emen itz batzuk, adibidez: *ORAIN*, *artzaIN*, *zai-zaiN*, *arrai-arraiN*, *zaitu-zaiNdu*, *amorraI-amorraIN*...

7'gn: BERA - BEERA:

Gauza oso ez-berdiñak ditugu gunaz edo mamiaz ere. Esatekoan ere naikoa berezi izan ditugu. Idaztekoan ere, beraz, era ez-berdiñetan idatziko ditugu biak.

- a) BERA: izen-orde ta abar danean: **"Atzo etorri zan norbait eta gaur ere BERA etorri da... Ber-bera, berak... berari... berarekin..."**
- b) BEERA: goitik beErakoa adierazten dugunean, bi EE. Adibidez: **Gutxi gora-beera... Mendian beera... Beeko gelan daگو...**

8'gn: ZUAITZ - ZUGAITZ:

Bietara ere erabilli izan dugu, eta abizenetan ere ageri dira biak. Guk, osoen uste duguna, artzen dugu: **zuGaitz**.

9'gn: EUKI - EDUKI:

Zalantzarik gabe, EDUKI da osoena ta iparraldean IDUKI erabiltzen dute. Era laburrean edo laguntzaillerik gabe jotzen dugu zenbait jokamaillatan. Agian gogorregi gertatzen dalako **"daDukat, daDukagu, zeDukaten, geneDukan..."**, geiengeienik, eta batez ere bizkaieraz, D gabe, erabiltzen dugu euskaldunok, EUKI alegia.

Bateratze-bidean, beraz, EUKI artzen dugu, EDUKI utzi gabe.

10'gn: ARKITU - AURKITU:

Osoago ta jatorragotzat jotzen dugu —U ori erabiltzea:
AURkitu, AURkiketa, AURkibidea...

11'gn: GELDITU - GERATU:

Iparraldean, Naparroa'n eta Gipuzkoa'n asko erabiltzen dugu GELDITU, baiña GERATU ere bai izketan beintzat. Bateratze-bidean, GELDITU artzen dugu gauza bera esateko: dabillanak ibillia uztea alegia, adibidez: "**Amarretatik bost galdu, eta bost GELDITU zaizkit... Trena ez da or GELDITU...**"
OARRA: bizkaieraz GERATU ere asko erabiltzen dute, batez ere,

GELDITU ta bertan jarraitzea edo bertan egotea adierazteko, adibidez: *«Mikel eta Peru, biak GELDITU dira enparantzan, baiña Mikel'ek aurrera egin du ta Peru bertan GERATU da.*

Erabilgarri da, beraz, GERATU ere.

12'gn: ARPEGI - AURPEGI:

Era berean, askotan ARpegi esaten dugun arren, idaztekoan, beti AURpegi idatziko dugu: **AURpegiko azala, AURpegi ona...**

13'gn: ANDI - AUNDI:

Bizkaieraz eta Iparraldean, erabillia goa da ANDI. Berez osoagoa dalako ta asko erabillia ere bai, AUNDI aukeratu dugu bateratze-biderako, bestea ere baztertu gabe.

14'gn: —ERAZI, —ARAZI, —ERAZO, —ARAZO:

Lau eraotara erabilli izan dugu an-emenka. Bat bakarra aukeratu ta besteak baztertzetik ez dago. Beraz, aukeraketa zabala egingo dugu bere mailletan:

a) —AZO ta —AZI, amaiera biak onartzea erabaki dugu, gauza bera esateko, amaiera biak erabiltzea aberasgarri da. Izan ere, gauza bera adierazteko diralarik ere, ez dago zertan bakarrera mugaturik.

b) Bestetik, zein aukeratu: —ARAzo ala —ERAzo, —ARAzi ala —ERAzi? Emen atzizki agertzen zaigun onen antzekoa ta eginkizun bererako, ERA— erabiltzen dugu "aurrizki" egiñik, **ERA-billi, ERA-karri, ERAtorri**. Beraz, arrazoi orrengatik e.a., —ERAzi ta —ERAzo aukeratu ditugu.

c) Nola idatzi? Aditza ta —ERAZO, —ERAZI zeoro banatuta?

Aditzari marratxoz lotuta?

Aditzari erantsirik edo itsatsita?

— Aditza osorik dala, eraskintzat lotzen diogunez, onela idatziko dugu: **jakin-erazi, jakin-erazo, entzun-erazi, entzun-erazo...**

— Aditza laburturik erabiltzekoan, marratxorik gabe itsatsita: **adiERAZI, adiERAZO, sarrerazi, sarrerazo, arrezazi, arrezazo...**

15'gn: BURNI - BURDIN:

Biak erabilli izan ditugu euskaldunok an-emenka. Euskaldun guztiei begira, edatuago da BURDIN. Gipuzkeraz oso gogor gertatzen dalarik ere, BURDIN erabiltzera joko dugu.

16'gn: BAIÑO ta BAIÑA:

Izketan askotan naasten ditugu, eta geienetan BAIÑO erabili izan dugu gauza bietarako. Bakoitza bere bete-bear berezirako erabilli bear dugu, onela:

a) BAIÑA: ostetasun edo aurkatasuna adierazteko. Adibidez:

"Etorri ziñan, baiña ez ninduzun aurkitu... Nai zen-

duan, baiña ez duzu lortu... "Ez duzu ikusi, nai zenuan baiña".

- b) Asperen-itzak esaten ditugunean. Adibidez: **Baiña, gizona! Baiña, jaunak, non gabilza! Baiña... baiña... zer ariz zerate?**
- c) **Baiño:** Alderaketa egiten dugunean, zein aundiago ala txikiago, e.a. adierazteko, BAIÑO idatziko dugu, berez eta izatez alaxe dalako. Adibidez:
Zu BAIÑO beranduago nator. Ni baiño gazteago zera. Zu gazteago zera ni baiño. Lotiago da zu baiño.
- d) Gipuzkerazko BAIZIK bezala, bizkaiteraz erabiltzen dutena ere BAIÑO da. Adibidez: **Konpontzeke ez da geratu, arazo bat bakarra baiño...**

17'gn: BEIN ERE, BEIN-ERE, BEINERE:

Iru era oietara idatzi izan dugu. Era bat bakarra aukeratzekotan, auxe aukeratu dugu, BEIN ERE, berezirik. "**Bein ere ez da garaz etorri. Bein ere ez da goiz jeiki.**"

18'gn: BAT ERE, BAT-ERE, BATERE:

Irutara erabili izan dugun arren, aurrerakoan, BAT ERE, berezirik idaztea aukeratu dugu. Adibidez:

"Ikasle orrek ikaskai BAT ERE ez du ikasi... Ikasle BAT ERE ez da etorri gaur... Arrazoi BAT ERE ez du eman..."

OARRA: Gauzak orrela, adibideotan bezala, izendatzen ditugunean, orduan egoki gertatzen da BAT ERE idaztea. Baiña, ez gauza bat, jakiñekoa, baizik-eta zabalagoan mintzatzen geranean, esanai zabalagoa du:

«BATERE ez mugitu... BATERE ez du lanik egin... BATERE ez da larritu... Onelakoetan, LOTURIK erabiliko dugu, banakatu daitekean BAT ez dagolako. BATERE ez da lotsatu.

19'gn: BEAR - BIAR:

Izketan ari gerala, askotan naasten ditugu ta bata bestearen ordez erabilli. Idaztekoan, ordea, bear dana aukeratu ta bakoitza dagokion eran idatziko dugu.

- a) BEAR: Izketan, "BER det, BIAR det", esaten ba'dugu ere, idaztekoan, beti BEAR erabiliko dugu: **Biar joan**

BEAR dut etxera...

Aitak egin BEAR zuan lan ori... Amak egin BEARREKOA da ori...

- b) BIAR: Izketan ari geraldarik, "BIYAR, BIXAR" esan arren, BIAR idatziko dugu: **Gaur joan eta BIAR etorriko naziz... BIAR BIARKOAK...**

20'gn: EDO - EO - O - ERO:

Lau era oietara esan izan dugu an-emenka. Baiña idaztekoan beti EDO idatziko dugu:

Gizon ori gizen EDO lodia da, bestea melar EDO meea da.

21'gn: ERE - RE - BERE - BE:

Era auek guztiak erabilli izan ditugu izketan. Idaztekoan, ordea, auek erabiliko ditugu, eta onela:

- a) ERE: Gipuzkeraz ez-ezik, bateratze-bidean ere, ERE idatziko dugu: **Aitak badaki lanean, amak ERE bai...**

- b) BE: Bizkaierazko BERE naastea gerta daiteke gauza bi ez-berdiñetarako:

"Aitak bere semea maite du (aitak beraren semea, alegia).

"Aitak BERE semea maite du (aitak ERE semea maite du, alegia.

Naasteak kentzeko, beraz, BE idatziko dugu bizkaierrez ari geranean.

"Semeek asko dakite; alabek BE asko ikasi dute.

22'gn: ABITU, ABITU, ABIATU:

Iru eraotara esan erren, ABIATU idatziko dugu.

23'gn: B ta P:

Elkar-trukatu oi diranetakoak dira, toki batzuetan P'tik B'ra agertzen da joera, besteetan B'tik P'ra. Bietara oso erabiliak ditugu zenbait itz, adibidez: **Bake** ta **Pake**, **Bekatu** ta **Pekatu**, **Barkatu** ta **Parkatu**, **denBora** ta **denPora**, **Biztu** ta **Piztu**.

Nolanai ere ulertzen errazak diranez, alde aundirik ere ez dutenez, biak erabiltzea aske gelditzen da.

24'gn: G ala K:

Auetan gauza bera gertatzen da zenbait itzetan, adibidez: Iparraldean "Kar" esaten dutena, "Gar" esaten dugu emen, Kartsu ta Gartsu... Baiña bestalde, an **Gako**, **Gate**, **Gatibu** esan eta idazten dituztenak, emen **Kako**, **Kate**, **Katibu**, e.a.

Ontan ere, beraz, aske dago bidea noiz zer aukeratu.

Joera bat nabarmendu bear dugu: erdal-izkuntzetako zenbait itz artu ditugunean, gogortu egin oi ditugula: **gato-Katu**, **gasto-Kastu**...

25'gn: D ala T:

Aurreko zenbaki bietako antzera, ontan ere joera bikoi-tza ageri da: batzuetan biguntzekoa, besteetan gogortzekoa. Eta batez ere erderatik datozen itzetan, adibidez:

jenDe-jenTe, sanTu-sainDu, alDare-alTare, menTu-men-
Du, Tolare-Dolare, Torre-Dorre, e.a.

Ontan ere ez dago bakarra artu ta bestea eragozterik.

26'gn: ASTEKO EGUN-IZENAK:

Oraingoz bearrezkoa dugu zenbaitetan BIAK erabiltzea, baiña bateratze-bidean, aukeratu ditugu:

- 1.— ASTELENA, 2.— ASTEARTEA, 3.— ASTEAZKENA,
- 4.— OSTEKUNA, 5.— OSTIRALA, 6.— LARUNBATA,
- 7.— IGANDEA.

Batez ere bizkaieraz, ordea, oraingoz utzi-eziñak dira beste aukerak:

- 2.— MARTITZENA, 3.— EGUASTENA, 4.— EGUENA,
- 5.— BARIKUA, 6.— ZAPATUA, 7.— DOMEKA.

27'gn: ILLABETEEN IZENAK:

Aukera egokia ta guztiei atsegin zaiena, ez da erraza inola ere. Aukera egitekoan erabili ditugun irizpideak, onamen:

- a.— Itz bera toki batean eta bestean era ez-berdiñean erabiltzen ba'dute, ua utzirik, beste bat artu.
- b.— Illabete guztientzat egitura bat bera artu: berdin bukatuz edo amaiera berdiña dutelarik, guztiak —ILLA dutelarik azkenecan.
- c.— Azken-urte aietan asko erabiliak diranak, batez ere "Goiz-Arri"n, "Kili-Kili"n, ETOR'en "Eusko Lurra" ta "Euskaldunak", KOSMOS liburuk e.a.

- 1.— URTARRILLA, 2.— OTSAILLA, 3.— EPAILLA, 4.— JORRAILLA, 5.— LORAILLA, 6.— EKAINILLA, 7.— UZTAILLA, 8.— DAGONILLA, 9.— IRAILLA, 10.— URRILLA, 11.— AZILLA, 12.— GABONILLA.

Euskal-senak adierazten duan eran antolatutik gelditzen dira onela.

28'gn:ZENBAKIEN IDAZKERA:

Asierakoek ez dute ez zalantzarik ez eragozpenik. Bat, bi, iru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzia, hamar, hamabai, hamabi, hamairu, hamalau, hamabost, hamasei, hamazazpi, emezortzi, emeretzia, ogei, berrogei, irurogei, larrogei, eun, berreun, irureun, lareun, bosteun. Ogei ta bat, ogei ta hamar, berrogei ta hamabost, larrogei ta emeretzia. Eun eta ogei ta emeretzia, zazpireun eta irurogei ta emezortzi.

Milla bederatzireun eta irurogei ta emeretzia, milla bederatzireun eta larrogei, ogei ta hamar milla zortzireun eta berrogei ta hamabost.

29'gn: ERDAL-ITZAK:

Erdal-izkuntzetatik zenbait itz artu ta euskeraz ari geranean, nola idatzi: Jatorriz dituzten izkiei eutsiz, ala gure erara aldatuta?

a.— Jatorriz nola diran, kontuan artzekoa da, leen J ta G'ri buruz esanik dugunez. Onela, **BioloGia, LoGika, Geografia, e.a.** idaztera joko dugu, ta aal dalarik esatera ere bai.

b.— Itz arrotzak, baiña geuretzako artu ditugunak, euskeraz idazten ari geranean, euskal-erara idatziko ditugu: **BERBO, adBerBio, adjetiBo, jende, birjiña, ehangelio...**

c.— Erdal-izen nagusiak: Geienak beren erara idatziko ditugu. Zenbait oso ezagunak eta asko erabilliak ditugunean, oitura dugun erara: **Madrid-MADRIL, France-FRANTZI-A, TXekoslovakia, Errusia, Erroma...** Bakoitzean aztertu ta erabakitzea, ori litzake onena.

30'gn: Izen nagusietan, J ala Y?

Giza-izen nagusiak idaztekoan, zalantzarik gabe, J izkia idatziko ditugu, gero esatekoan bigunago azkatzten ba'ditugu ere. Adibidez: **JON, JOseba, Julen e.a.**

31'gn: TA - ETA:

Noiz bata ta noiz bestea erabili?

a) TA erabiltzeko arauak eta adibideak:

- 1) Zerrenda luzea danean: **au ta bestea ta urrengoa ta gaitñerakoa...**
- 2) Aureko itza E izkiz naiz-ta beste edozein bokalez amaitzen danean: **aia TA ama TA amaiak... Gizona ta andrea ta aitona datoz...**
- 3) Aditzari, atzizki bai'litza, lotzen zaionean: **Nere Gorputza da-ta... IkusiTA dago... EseriTA zegoen... Beldurtuta gelditu da...**

b) ETA erabiltzekoak: Esankizunen edo esaldien asieran, au da, puntuaren ondoren: **Atzo joan zan. Eta gaur pozik etorri da.**

- 2) Aureko itza kontsonantez amaitua danean: **lagunak ETA etsaiak...**
- 3) Itz batzuk zerrenda luzean diranean, berdintsuen artean garrantzi aundiagoa emateko. Adibidez: **"Auzokoa ta laguna ta amaia ETA ama ere salduko luke orrek diru-truk".**

32'gn: BEZELA - BEZALA:

Edatuago ere izango da, noski, baiña batez ere jatorrago da BEZALA. Nola? galderari erantzuten dio: **Nola? ALA, ura bezALA. Bizkaieraz, LEZ - LEGEZ ere erabilgarri dira.**

33'gn: USTEKO, BEARKO, NAIKO, ITXAROKO...

Askotan orrela erabiltzen ditugu. Alca erabilli bear ote ditugu?

"Gizon arek USTEKO, BEARKO, NAIKO, ITXAROKO zuan sari ohea baiña... Orrela erabilli izan ditugu, baiña berez obe da beste era ontara idaztea: Uste IZANGO du, BEAR IZANGO, ITXARO IZANGO, NAI IZANGO du au. Gaizki ez daudelarik ere, OBE dugu IZANGO sartuta idaztea.

33'gn: BEDEREN, BEDERENIK; BEDERIK, BERENIK:

Esatekoan, lau era oiek beintzat erabilli izan ditugu. Ondorengo biak erabilliko ditugu: BEDEREN eta BEDERIK. Ona adibideak:

"Ikaskai guztiak ez ba'dituzu ikasten ere, ikas itzazu iru BEDEREN...

"Esana egingo ez ba'duzu ere, egizu entzun BEDERIK...

34'gn: UTS, ALDE, ITZ EGIN:

"Lau egin" bezala, UTS, ITZ, ALDE ere "egin" aditzaz jokatatu oi ditugu, baiña bi eratara: **"Lau ITZ egin, bi UTS egin, gure ALDE egin du...**, orrela berezirik, lotu gabe, era bata.

Bestea, itzok binaka elkaturik, aditz eginda bezala: **Nik onela itzegin...**

- a) Lau ITZ egin ditugu elkarrekin eta nik bi UTS egin ditut eta zuk beste bi... **"Zure ALDE egin du gure adiskideak gaizki-esaleen aurrean"**. Onelakoetan, zalantzarik gabe, berezirik eta bakoitza bakoitz erabilliko ditugu.
- b) Beste batzuetan, ordea, aditz egiñik erabiltzen ditugu: **"Lagunak lagunarekin ITZEGITEN DU gogotsuenik. "Zintzoak berak egunean zazpi aldiz UTSEGITEN DU. "Otsoaren beldurrez, illundu baiña leen ALDEGIN DU emendik.**

IV'gn: Izen - jakabidea

"Izen-jakabidea" esatean, IZENA, bera bakarrik ez dugu ar-tzen, bera bakarrik ez dalako izenaren erara jokatzen duguna: baita **izen-laguna**, **izen-ordea** ta **aditza** bera ere **izen bihurturik**, jokatzen bai-ditugu.

I'go: BIZIDUNAK:

Au da, **ezagueradunak eta abereak**, Or sartzen dira: izenak, izen auei loturiko izen-lagunak eta dagozkien izen-ordeak.

a) **Aotslagunez amaïtuak:** gizoN, laguN, jatoR, aitoR, gizeN, okeR...

MUGATUA		MUGAGABEA (1)
Batenean	Batzuenean	
Gizon-A	Gizon-A -K	Gizon-
Gizon-A -K	Gizon-E -K	Gizon- e -K
Gizon-A- r -I	Gizon-E -I (6)	Gizon- -I
Gizon-A- r- e- -N	Gizon-E -N	Gizon- e- -N
Gizon-A- r- e -KIN (4)	Gizon-E -KIN	Gizon- e -KIN (4)
Gizon-A- -GAZ (B)	Gizon-A -KAZ (B)	Gizon- e -GAZ (B)
Gizon-A- ren -TZAT-TZAKO	Gizon-E- n -TZAT-TZAKO	Gizon- e -TZAT-TZAKO
Gizon-A- -Z	Gizon-E- ta -Z (5)	Gizon- e- -Z
Gizon-A- (ren) -GAN	Gizon-E- n -GAN	Gizon- e -GAN
Gizon-A- (ren) -GANDIK	Gizon-E- n -GANDIK	Gizon- e- n -GANDIK
Gizon-A- (ren) -GANA	Gizon-E- n -GANA	Gizon- e- n -GANA
Gizon-A- (ren) -GANAIÑO	Gizon-E- n -GANAIÑO	Gizon- e- n -GANAIÑO
_____	_____	Gizon- -IK
_____	_____	Gizon- -TZAT

- b) E, I, O, U, bokalez amaituriko itzen jokabidea: semE, gu-rasO, arbasO, aitasO, lengusU, ume bizI, aingerU, an-drE, emaztE...

MUGATUA		MUGAGABEA (1)
Batenean	Batzuenean	
Seme-A	Seme-A- -K	Seme- —
Seme-A -K	Seme-E- -K	Seme- -K
Seme-A-r -I	Seme-E- -I (6)	Seme-r -I
Seme-A-r-e -N	Seme-E- -N	Seme-r-e -N
Seme-A-r-e -KIN	Seme-E- -KIN	Seme-r-e -KIN
Seme-A -GAZ (B)	Seme-A- -KAZ (B)	Seme- -GAZ (B)
Seme-A-r-en -TZAT-TZAKO	Seme-E-n -TZAT-TZAKO	Seme-r-en -TZAT-TZAKO
Seme-A -Z	Seme-E-ta -Z (5)	Seme- -Z
Seme-A-(ren) -GAN	Seme-E-n -GAN	Seme-ren -GAN
Seme-A-(ren) -GANDIK	Seme-E-n -GANDIK	Seme-ren -GANDIK
Seme-A-(ren) -GANA	Seme-E-n -GANA	Seme-ren -GANA
Seme-A-(ren) -GANAIÑO	Seme-E-n -GANAIÑO	Seme-ren -GANAIÑO
		Seme-r -IK
		Seme- -TZAT

- c) Amaitera, A izkia dutenak, edo A itsatsia dutenak: Aita-amA,... (2).

Neska —	Neska -K (3)	Neska —
Neska- -K	Nesk-E -K	Neska- -K
Neska-r -I	Nesk-E -I (6)	Neska-r -I
Neska-r-e -N	Nesk-E -N	Neska-r-e -N
Neska-r-e -KIN	Nesk-E -KIN	Neska-re -KIN
Neska- -GAZ (B)	Nesk-A -KAZ (B)	Neska- -GAZ (B)
Neska-r-en -TZAT	Nesk-E-n -TZAT	Neska-ren -TZAT
Neska- -Z	Nesk-E-ta -Z (5)	Neska- -Z
Neska-(r-en) -GAN	Nesk-E-n -GAN	Neska-(ren) -GAN
Neska-(r-en) -GANDIK	Nesk-E-n -GANDIK	Neska-(ren) -GANDIK
Neska-(ren) -GANA	Nesk-E-n -GANA	Neska-(ren) -GANA
Neska-(ren) -GANAIÑO	Nesk-E-n -GANAIÑO	Neska-(ren) -GANAIÑO
		Neska-r -IK
		Neska- -TZAT

2ºgn: BIZIGABEAK edo TOKI-IZENAK:

Landare bizidunak ere tarteko dirala.

Bizidunen berdiñean jokatzeko ditugu, bereizkuntza auek ezik:

- 1) —KIN —GAZ, laguntasuna ta lagun-adierazpena dute, orregatik, bizidunekin bakarrik erabiltzekoak dira BERE-NEZ...
 - 2) NON, NORA, NONGO, NONDIK... galderen erantzunak dira toki-izen auen gauza bereziak.
- a) **Aotslagunez amaituak:** luR, jolaS, araN, oiaN, solaS, ITZ, minTZ...

MUGATUA		MUGAGABEA (1)	
Batenean		Batzuenean	
Aran-A- —	Aran-A- -K	Aran —	—
Aran-A- -K	Aran-E- -K	Aran-e -K	-K
Aran-A-r -I	Aran-E- -I (6)	Aran- -I	-I
Aran-A-r-e- -N	Aran-E- -N	Aran-e- -N	-N
Aran-A-r-e -KIN (4)	Aran-E- -KIN (4)	Aran-e -KIN (4)	-KIN (4)
Aran-A- -GAZ (B)	Aran-A- -KAZ (B)	Aran-e -GAZ (B)	-GAZ (B)
Aran-A-r-en -TZAT	Aran-E-n -TZAT	Aran-en -TZAT	-TZAT
Aran-A- -Z	Aran-E-ta -Z (5)	Aran-e -Z	-Z
_____	_____	Aran- -IK	-IK
_____	_____	Aran- -TZAT	-TZAT
Aran-e-A- -N	Aran-E-ta -N	Aran-e-ta -N	-N
Aran-e- -Ra+ iño	Aran-E-ta -Ra+ iño	Aran-e-ta -Ra+ iño	-Ra+ iño
Aran-e- -KO	Aran-E-ta -KO	Aran-e-ta -KO	-KO
Aran-e- -TIK	Aran-E-ta -TIK+RIK	Aran-e-ta -TIK+RIK	-TIK+RIK
Aran-e- -RUNTZ	Aran-E-ta -RUNTZ	Aran-e-ta -RUNTZ	-RUNTZ

- b) E, I, O, U bokalez amaituak: etxE, mendI, sorO, burU,
basO, zerU...

Toki-izenei dagokien zati berezia ipintzen dugu emen,
gaiñerakoa currekoaren berdiñean jokatzen dugulako.

MUGATUA			MUGAGABEA (1)	
Batenean		Batzuenean		
Baso-A-	-N	Baso-E-ta-	-N	Baso-ta -N
Baso- -	-RA+iño	Baso-E-ta	-RA+iño	Baso-ta -RA+iño
Baso- -	-KO	Baso-E-ta	-KO	Baso-ta -KO
Baso- -	-TIK	Baso-E-ta	-TIK+RIK	Baso-ta -TIK+RIK
Baso- -	-RUNTZ	Baso-E-ta	-RUNTZ	Baso-ta -RUNTZ

- c) Amaiera, A izkiaz dutenak, edo A itsatsia dutenak: erre-
ka, ormA... (2).

Orma-	-N	Orm-E-ta	-N (3)	Orma-ta	-N
Orma- -	-KO	Orm-E-ta	-KO	Orma-ta	-KO
Orma- -	-RA+iño	Orm-E-ta	-RA+iño	Orma-ta	-RA+iño
Orma- -	-TIK	Orm-E-ta	-TIK+RIK	Orma-ta	-TIK+RIK
Orma- -	-RUNTZ	Orm-E-ta	-RUNTZ	Orma-ta	-RUNTZ

3'gn: **IZEN NAGUSI** edo **BEREZIAK** bai bizidunen eta bai toki-izen.

- a) **Bizidunak:** Maite'K, Maite'r-I, Maite'r-EN, Maite're-KIN,
Maite'GAZ, Maite'renTZAT, Maite'Z, Mai-
te'ren-GAN, Maite'ren-GANA, Maite'gancañ,
Maite'renGANDIK...

Jon'ek, Jon'I, Jon'eKIN, Jon'eGAZ, Jon'EN,
Jon'enTZAT, Jon'eZ, Jon'enGAN, Joan'enga-
na+iño, Jon'engandik...

- b) **Toki-izenak:** Bidani'K, Bidani'rI, Bidani'REN, Bidani'reKIN,
Bidani'GAZ, Bidani'rentzat, Bidani'Z, Bida-
ni'ra+iño, Bidani'ko, Bidani'TIK, Bidani'N,
Bidani'runtz...

Eibar'EK, Eibar'I, Eibar'EN, Eibar'ekin, Eibar'egaz, Eibar'entzat, Eibar'ez, Eibar'era, Eibar'ko, Eibar'en, Eibar'tik, Eibar'eruntz...

4'gn: MUGATU URBILLA edo ZEAZTU-ZEAZTUA

Bizkaieratik at, geien-geienik bizidunen jokabidean erabiltzen dugu. Bizkaieraz, berriz, toki-izenetan ere bai, ugari erabilki ere. Baiña beste euskalkietan ere ez da arrotz gertatzen eta erabilgarri da. Bizidunei dagokienez, NOIZ erabilki?

- a) Bizidunak diranean, GU ta ZUEK sartzen diran guztietan: **GU euskaldunOK, ZUEK entzuleOK, gu lanjilleOK, zuek adiskideOK...**
- b) Bizidun eta toki-izenetan: EMEN naiz OR dagona adierazten dugunean: **EMEN gaudenOK, OR zaudetenOK, EMENGO etxeOTAN, ORKO mendiOTAN...**
- c) Eta beti **askorenean** edo **batzuenean**, eta ez bakarra danean. Bakarra adieraztekoan, adierazleak erabiltzen ditugu: **gizon ORI, etxe ONTAN, lagun ONEKIN...**, orrela izena ta adierazlea berezita. Batzuenean, ordea jatorri bera izan arren ere, izenari lotuta jokatzan ditugu eta orregatik ipiñi ditugu emen ondorenean.

Biziduna	Toki-izena
Gizon-O- -K	Etxe-O- -K
Gizon-O- -I	Etxe-O- -I
Gizon-O- -N	Etxe-O- -N
Gizon-O- -KIN	Etxe-O- -KIN
Gizon-O- -KAZ (B)	Etxe-O- -KAZ (B)
Gizon-O-n -TZAT	Etxe-O-n -TZAT
Gizon-O-ta -Z	Etxe-O-ta -Z
Gizon-O-n -GAN	Etxe-O-ta -N
Gizon-O-n -GANDIK	Etxe-O-ta -TIK+RIK
Gizon-O-n -GANA +iño	Etxe-O-ta -RA +iño
Gizon-O-n -GANAKO	Etxe-O-ta -RAKO
	Etxe-O-ta -KO
	Etxe-O-ta -RUNTZ

Izen-jokabideari dagokionez, oar batzuk, goian ipiñitakoen argigarri.

(1) **"Mugagabea"** edo **"Zeaztugabea"** deritzaion jokacera, itza danez-dan osorik artuta, zuzenean erasten diogu Atzizkia, geienez-tan. Baiña tartean -r-, -en-, -ren- sartzen ditugu loturatzat, goian ageri danez, A ta E mugatzailleak sartu gabe alegia.

(2) Dalako **A itsatsia** dutenak jokatzekoan, Mugatua ta Mugagabea bereizteko, bizkaieraz bide egokia dute:

<u>Mugatuan</u>	<u>Mugagabean</u>
Orm-e-A-K, Eusker-e-A-K, alab-e-A-K.	Orma-K, Euskera-K, alaba-K...

Egia esan, bide ona litzake naasketak garbitzeko, baiña bizkaieratik at jokaera ori sartzea... benetan aldatz gora izango da.

(3) $A + E = E$ adieraziz ulertu izan dugun araua ontzat arzen dugu. Aipaturiko A itsatsia duten itzetan gertatzen da arau orren bearra. Onela, **aia-EN-GAN**, **alaba-EN**, **ama-ENTZAT**, **errek-a-ETARA**, **orma-E-tan**... erabiltzeko ordez, $a+e=E$ egingo dugu, itsatsia dan arren, galdu-eraziz. Onela: **aia-ENGAN**, **alab-EN**, **ama-ENTZAT**, **errek-ETARA**, **orm-ETAN**...

(4) —KIN eta —GAZ, atzizki biok, batez ere NOR diranen izenetan erabiltzekoak dira, norbaiten lagun ibiltzea adieraziz. Adibidez: **aia-re-KIN**, **lagun-E-KIN**, **ama-GAZ**, **semea-GAZ e.a. joan naiz mendira**.

Orregatik, bestelakoetan ez erabiltzera joko dugu eginaalean: **eskua-REKIN jo**, **makilla-rekin jo**, e.a. erabiltzeko ordez, beste aukerabilliko ditugu: **eskua-Z jo**, **makilla-Z jo e.a.**

Bestalde, —KIN eta —GAZ biak aukeran erabiltzea ontzat ematen dugu: bata, —GAZ bizkaieraz erabiltzeko ta bestea, —KIN baturantza bidean.

(5) —Z, —E-ta-Z: Bizidunen izenetan —Z naikoa litzake BE-REZ. Baiña —ETAZ ipiñi dugu, arrazoi auek diralabide:

Mugagabea	Mugatu bakarra	Mugatu batzuen
Seme -Z	Seme-A -Z	Seme-E -Z
gizon-e -Z	Gizon-A -Z	Gizon-E -Z
guraso- -Z	guraso-A -Z	guraso-E -Z
lagun-e -Z	laguna-A -Z	lagun-E -Z

Adibideotan ageri denez, zenbait naaspide sor daitezke orrela; eta beste era ontara inñolako naaspiderik ez: askoz garbiago ta zeatzago:

Seme- -Z	Seme-A -Z	Seme-E-ta -Z
gizon-e -Z	gizon-A -Z	gizon-E-ta -Z
guraso- -Z	guraso-A -Z	guraso-E-ta -Z
lagun-e -Z	lagun-A -Z	lagun-E-ta -Z
lurr-e -Z	lurr-A -Z	lurr-E-ta -Z

Mugatu edo zeatzu batzuenan, beraz, orrela erabiliko dugu: —ETAZ.

(6) NORI? galderari dagokiona, BATZUENEAN, —EI ala ERI? —ERI erabiltzeko izan ditugun arrazoiak:

- a) Zenbait aldiz esan ere esaten dugu: zueRI, guRI, aieRI...
- b) Ipar-Euskalerrian bizirik darabilten era da, eta ain bizirik ere! NORI galderaren ezaugarri dan —I galdurik ere, —R gorde dute ta erabiltzen dute orain bertan ere.

Adibidez: gizonE-R, zordunE-R, e.a.

Bestalde, askotan erabiltzen dute —ERI orrela idatzirik ere:

Adibidez: semeERI, guzieRI, umeeRI...

Baiña baita oker ere: umEI, semEI, emaztEI...

Orrelakorik gerta ez dadin, egokien, —ERI idaztea litzake.

- c) Bizpauru bokal elkarren jarrairan, ez ditu gogozko Euskerak, eta orduan, galdu-erazi egin oi da bakarren bat: semEI, umEI... Bokalak iru jarrairan ez gertatzeko ere mesedegarri da onela: seme-E-RI, ume-E-r-I, emazte-E-r-I, gazteE-r-I...
- d) Azkenik, zenbait idazlanetan orrela erabilli izan dute: GOIZ-ARGI asterokoa, KOSMOS ikas-liburuak eta beste zenbaitetan.

Ala ta guztiz ere, —**EI bakarrik erabiltzea erabaki dugu.** Batetik, berez-berez "R" ori ain bearrezkoa ez dala-ko. Bestetik, idaztekoan indar artuz doan joeratik geiegi ez urrutoratzearren.

